

HIZKUNTZAREN ERABILERA ZUZENA AUTONOMI ADMINISTRAZIOAN

Bilbo, 1994.02.24

*M.^a Karmen Garmendia Lasa,
Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia*

Jaun-Andreok,

Garrantzizkoa iruditzen zait oso Euskaltzaindiak egun hauetako ihardunaldietako gaia hausnartzeari ekitea. Izan ere hizkuntzaren kalitateari buruzko kezka, edo hizkuntzaren zuzentasunari buruzkoa, norbaitek nahiago badu, ez da berria, ez da gutxiagorik ere gure artean, eta ezta berria, ez horixe, hizkuntza indartsuak dituztenen auzokoan artean ere. Dena den, aspaldi samarreko partez gurean ere gogoeta interesgarria egiteko aukera eta tenorea iritxi zaizkigula iruditzen zait.

Nire buruari galdera egiten diot, ordea, ia Ihardunaldi hauen izenburuak dioen aztergaiak adierazten duenaz iritzi beretsukoak ote garen edo ez. Ez daukat ezer “zenbat buru hainbat aburu” haren aurka, aldearantziz. Baina galdera hau da: zer ote da gutako bakoitzarentzat *hizkuntzaren kalitatea*, edo *hizkuntzaren zuzentasuna*? Norbaitek esana du oso kontzeptu nabarra dela hori baina, horrela bada ere, behin eta berriz azaltzen dena da oso garai, hizkuntza eta toki desberdinetan. Beraz, badirudi orozko kezka adierazten duten gertaerak badirela.

Honenbestez derrigorrezkoa da hizkuntz aldakuntzaz jardutea, ezin ukatuzko gertakizuna baita hori, hizkuntza guztien eta bakoitzaren baitan somatzen dugun adurra. Puntu honetan honako beste galdera hau ere badatorkit burura: Gure aiton-amonek egiten zuten euskara hala guk egiten duguna da hobe? Izan ere belaunaldi batetik bestera aldea somatzen baitugu, eta nahi badugu eta ez badugu hizkuntz aldaketak etengabe gerta daitezkeela onartu beharrean gaude. Besteak beste gizarte aldakuntzaren beraren alde bat besterik ez direlako.

Aldaketa horiek hizkuntza indartsuetan krisiaren adierazgarri bezala jo izan ditu zenbaitek, galbidera daraman krisi bezala gainera. Beste zenbaiten ustez, ordea, hizkuntza bizirik dagoelako gertatzen dira. Adituen ustez gramatika arloa izan ohi da aldagaitzena; lexikoa, berriz, aldatzen

oso samurra; tartean, aldiz, ahoskera legoke. Gutako edonork ere bere begiz eta belarriz nahi adina aldiz somatu ahal izaten du uste hori.

Euskal Herrikoa bezalako hizkuntz egoera batean ordea kalitateari buruzko hausnarketa benetakoa eta baliagarria izan dadin ezinbestekoa da, nire uste apalean, hizkuntz egoera horren osagaiak eta berezitasunak gogoan hartzea. Urte luzeak joan dira gure inguruko hizkuntza haundiak euren norma edo arauak erabaki zituztenetik hona. Hortik sortu eta nagusitutako iritzia hauxe izan zen: arautegi horretan datza hizkuntza kalitatea. Baina hori eta horrenbestez ez zuen irau, eta bestelako iritzi batzuetako norbanakoen ahotsa ere entzuten hasi zen hainbat gizarte aldatetekin batera. Hizkuntza kalitatearekin oso lotuta, normaz gain, jartortasuna, ulergarritasuna eta gizarte egituraketa bera ere badaudela uste dut. Interesgarria izango litzateke guztiz normatibizazioak hizkuntza desberdinetan egin duen bidea aztertzea. Euskarari dagokionez, ez legoke soberan azken urte hauetan egindakoa aurrera nondik nora eta nola eraman daitekeen aztertzea. Lan hori agorra gertatuko dela uste dut ordea, baldin eta goraxeago aipatu dudan euskararen egoera jakina —ez naiz ongaitzez ari orain— jakituriaz eta artez gogoan hartzen ez bada.

Badirudi *corpus* alorraren atalak ezin izango ditugula *status* alorrari dagozkion beste hainbat gogoan hartu gabe aztertu, baina hasieratik bertatik euskara beraren hezurdura, kokagunea, beste hizkuntzekin duen ukipena eta, ezin ahantz daitekeena: azken urte hauetan normalkuntza izenez izendatu dugun egitasmo erraldoi eta hizkuntzaren etorkizunerako derrigorrezkoa den horren berezitasunak ere gogoan hartzen ez baiditugu.

Hitza hartzearekin batera hausnarketa honen garrantzia azpimarratu nahi izan dut. Horretan hasteko bestetarako asti eta modurik ez dela izango egun hauetan uste dut. Bene-benetan gura eta espero dut soseguz, seriotasunez eta geroko gerotan gabe gai honetan ere bidea urratzea. J. A. Fishman maisu haundiaren hitzak ekarri nahi ditut gogora. Esku artean dugun gaiak ari dela berrikuntza lehengotik datorrela dio, ezer ez dela sortzen. Eta honako adibide hau eskaintzen du argigarri: “Pentsa dezagun joandeko lau belaunalditan etxean dugun mailu horretan. Kirtena hiru aldiz aldatu zaio, burua bost aldiz, baina denok esaten diogu aitajaunaren mailua”. Hizkuntza kontuan gertatzen dena ere antzekoa da. Lehengoa eta oraingoa, berezkoa eta mailegua denak dira gogoan hartu beharrekoak.